



2011ko KUDEAKETA PLANA

Euskararen Foru Zerbitzua



▶ Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

▶
www.alava.net



euskaraba.com
arabako euskararen ataria

Sarrera

Aldundiak 2010-2013 aldirako Arabako Euskararen Plan Estrategikoa onartu zuen 2009ko azaroan. Plan honetan 75 jarduera agertzen dira lau urte horietan garatzeko bere aurrekontuarekin eta guzti.

2010eko abenduaren 15ean Euskararen Foru Zerbitzuaren Aholku Batzordearen bilera izan zen Artium Museoan eta bertan 2011rako eragin-esparru bakoitzetik bina helburu eta launa estrategia lehenetsi ziren.

Jarraian datoz lehenetsitako helburuak, bakoitza bere eragin esparruan kokatuta eta estrategiak zehaztuta.

2010eko Helburuak eta Ekintzak

1

Komunikabideak eta IKT-AK

Arabian eskuragarri dauden euskarazko komunikabideak gehiago kontsumitzen laguntzea gizarteko jarrerak kon-tuan hartuz eta komunikabideek horretarako duten inte-resean oinarrituz.

1.1. Hitzarmenak eginez aldirikariek / egunkariek in euskarazko harpidetza sustatzeko.

- *Berría* egunkariko *Mantangorri* gehigarria Arabako Lehen Hezkuntzako eskoletan zabaldu.
- Euskarazko kantagintza sustatzeko *Badok* web gu-nea sustatu.
- Mintzalagun programako partaideen artean harpide-tzak ahalbidetu: *Berría*, *Aizu...*
- Kuadrilla bakoitzean hainbat aldirikari-egunkari zabaldu.
- Durangoko Azokan Arabako euskal ekoizpenak erakutsi.
- *Badok* webgunea babestu.

Gizarte ekimenetik sortzen diren euskarazko komunikabideen egitasmoa(k) babestea.

1.2 Suerta litezkeen euskarazko hedabideetako eratzte eta sortze saioetan aholkatuz eta parte hartuz.

- Hamaika Telebista.
- Aiaraldea.com.
- Arabako Hitza.
- Gasteizen euskarazko argitalpen baten bideragarritasun azterketa egin.

1.3 Euskararen agendan kultura, aisia eta kirolari buruzko informazioa emanez aldizkari, egunkari eta irrati nagusietan, euskaraz zein gaztelaniaz. (erdaldunek euskararen mundutxoaren berri izan dezaten eta, ez jakiteagatik, galtzen ari direnaz jabetu daitezten).

- Euskaraba.com egokitu.
- Komunikazio estrategien gaineko formazioa eskaini.
- Arabako euskarazko jardueren agenda izateko informazioa lortu eta eskaini euskaraba.com webgunean.

1.4 IKT berriek eskaintzen dituzten euskarazko bilguneak (foro, sare, web, blog...) zerrendatuz eta horien berri emanez gaztetxoei.

- Euskaraba.com web gunea zabaldu.
- Euskarazko produktuen katalogoa etxeetara zabaltzeaz gain, sarean ere zabaldu.

1.5 Laguntzak emateko irizpideak aztertuz eta arautuz.

- Komunikazio azpibatzaordea eta Plan Estrategikoan izan ziren komunikazio esparruko partaideekin batzaordea eratu.

Administrazioa

Euskarazko eskaria eta eskaintzaren (herritar eta administrazioa) arteko lotura egiteko, gizartean eta administrazioan bideak sustatzea.

2.1 Ahaleginak eginez udal eta Kuadrilla bakoitzak zein bere EBPB (baita Erabilera Plana ere) garatu eta onar dezan.

- ↘ Kuadrilla bakoitzak Urteko Kudeaketa Plana eta Erabilera Plana garatu eta diseinatu.
- ↘ Epe ertainean udaletan ere Erabilera Planak garatzen hasi dadin sustatu.

2.2 Lurraldeko Euskara Zerbitzuen sarea sustatzeko lana eginez, eta osatzen doan neurrian, horien arteko sare integrala osatuz. (koordinazioa, estraneta, prestakuntza bateratua Kuadrillatan sor ditzaten sustapen lana egin.

- ↘ Kuadrilletako Euskara Teknikariak kontratatzeke deialdia atera.
- ↘ Hileroko kuadrilletako Euskara Teknikariek koordinazio bilerekin eutsi.
- ↘ Formazio saioak eskaini.
- ↘ Osasungintzan Ikerkuntza Jardunaldia.: Ezagutzatik ekintzara.
- ↘ Ondasun higigarriak erosteko diru-laguntza eskaini jardura berezietan hobekuntza lortzeko.

Langileei erabilera gehitzeko tresnak ematea, segurtasuna, erraztasuna eta erosotasuna emateko.

2.3 Erakundeetako agintari eta sindikatuekin sensitibilizatzeko jardura(k) eginez erabilera planak sustatzeko.

- ↘ Ebaluazio bilerak kuadrilletako lehendakari eta gerenteekin.

2.4 Bai euskara teknikariei bai animatzaile sozio kulturei formazioa eskainiz (beste Aldundiekin batera elkarlana bideratu).

- ↘ Udaltop jardunaldietan parte hartu.
- ↘ Arabako Euskaldunon Elkarguneak jardunaldia antolatu.

Gazteak eta aisialdia

Euskarazko eskaintza bermatzea eta esparru berrietan zabaltzea.

3.1 Begirale eskolak, kirol federazioak, zerbitzu enpresak formazio saioak eskaini ditzaten (euskararen normalizazioaren inguruan) diru-laguntzak eman ez (hartzaileak: begirale eskolak, kirol federazioak, zerbitzu enpresak...).

- Gazteekin (begirale eskoletan, adibidez) eta kirolean diharduten eragileekin euskararen lerroaz sentibilizazio saioak sustatu, Gazteria Foru Erakundearekin elkarlanean.
- Gasteizko udalarekin hitzarmenarekin jarraitu.
- Kuadrillei diru-laguntza eskaini EBPN bidez normalizazioa sustatzeko.
- Euskara ikasteko ikastaro bereziak eskaini kirol federazioei.
- Itzulpen zerbitzua eskaini.

Euskarazko eskaintza gaztelaniazkoa baino erakargarriagoa izatea, edo ezberdina.

3.2 Indarrean dauden planen eta ekimenen ebaluazio sakona eginez (zertarako sortu ziren? Zer nolako emaitzekin? Zer onurak eta albo-eraginak? Nola hobetu edo birbideratu?), ekimen horietan parte hartu dutenekin kontatuz.

- Euskara planen azterketa eta zehar lerroa behatu, eta dagokien eragileei aurkeztu.

3.3 Komunikabide, teknologia berriek eta zinemak garrantzia handia dutenez, zinema arloan euskararen presentzia areagotuz, Kuadrilla bakoitzera bai eskaintza berezia eginez bai bildumak banatuz.

- Kuadrilletan maileguan bideoak, mahai jokoak eta antzerako materiala banatu.

3.4 Eragileen arteko koordinazio mahaia antolatuz.

- Topaketa antolatu euskara planen berri emateko eta ondoren batzordea osatu.
- Abenduaren 3, Euskararen Nazioarteko Egunerako programa sustatu.

Euskalduntzea

Diputazioak epe luzerako plan bat aurrera eramatea.

4.1 Euskaltegiekin lan-hitzarmenak bideratu hainbat sektoretan euskalduntzea sustatuz.

- HABEz kanpoko euskara ikastaroak diruz lagundu.
- Lurraldean euskara ikasteko kanpaina bateratua egin.
- Langraitzeko espetxeko presoei euskarazko eskolak eskaini.
- On-line ikastaroak kuadrilletan eskaini.

Euskara landu eta zabaltzeko ardura instituzioek ere bere egitea.

4.2 Mintzalagun taldeetan inbertsioa eginez eta Arabako taldeak koordinatuz.

- *Gaztelagun* programa abian jartzeko ikerketa lagundu.
- Kuadrilletako Euskara Teknikariek koordinazioan lagundu.
- Arabako mintzalagunen *Mintza Eguna* babestu.
- GEU elkartearekin hitzarmena lotu *Gurasolagun* programa sustatzeko.
- Korrika 2011 sustatu.

4.3 Agintariek euskara ikasteak dakartzan abantailak erakutsiz, euskalduntzen ari direnak gizarteratuz.

- Komunikazio saioak diseinatu: sentsibilizazioa lortzeko.
- Etorri berriak euskararen bidez integratzeko *Euskal enbaxadoreak* programarekin jarraitu.
- Etorri berriei Espejoko aterpetxean egonaldiak eskaini.
- Munduko jolasak programa antolatu.

Kulturgintza

Arabako euskal kulturgintzan diharduten elkarte eta erakundeen artean komunikazioa elkar trukatzeko eta koordinazio egokia izateko sarea eratzea.

5.1 Euskararen Foru Zerbitzuaren euskaraba web gunean helburu honetarako txokoa eratuz eta tresna osoari behar adinako dinamikotasuna emateko baliabideak jarriz.

- Euskaraba.com web gunean euskararen agenda garatu eta moldatu.
- Hitzarmena EHUrekin bekadun praktika aldia EFZn egiteko.

5.2 Praktika onak edota ideien laborategia eragileen artean ezagutarazteko sistema sortuz.

- Arabako Euskaldunon Elkarguneak II jardunaldia sustatu.
- Topagunea Federazioarekin hitzarmena sustatu.
- Mendi Programan kolaborazio bideak aztertu.
- ARIN aldizkaria sustatu.
- Ignacio Aldecoa Kultur Etxean euskarazko kultur ekoizpenen HltzA programa sustatu.
- Arabako produktuak ezagutzeko Bideoak eta trip-tikoak sortu euskarazko zabalkundea izan dezaten.
- Bertsolaritza elkartearekin hitzarmena sustatu.

5.3 Ideia laborategia martxan jartzeko bideak diseinatu.

Instituzioen inplikazioa lortzea, kultur eragileen jarduna errazteko eta eurek ere kultur eragile bihurtzeko.

5.4 Udal edo Kuadrilla bakoitzak bere EBPN onartuz eta garatuz.

- Elkarteei zuzendutako diru laguntza deialdia.

5.5 Jarduera nagusiek ere euskara kontuan har dezaten plana sortuz eta koordinazioa lortuz.

- Bost kultur jarduera nagusi aukeratu (Magia astea, kirol txapelketak, Azkena Rock...) eta normalizazio proposamena helarazi.

6

Familia transmisioa eta irakaskuntza

Eskolaz kanpo ere euskaraz bizi ahal izateko ikastetxez kanpoko eragileekin elkarlanean aritzea.

6.1 Ikasgelaz eta eskolaz kanpoko zerbitzuak euskaraz bermatzeko laguntza eskainiz.

- ↘ Bilalan web gunea, aisialdian euskararen lan eskaintza areagotzeko.

6.2 Batzordea antolatuz non euskararen eragileak, euskaraz lan egiten duten ikastetxeak eta erakundeak, administrazio publikoko arduradunak eta soziolinguistikako adituak bilduko liratekeen.

- ↘ Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzuarekin koordinazioa sustatu.

Arabako gizarte osoan denon ondarea izan behar duen euskara berreskuratzeko, hezkuntza komunitate osoaren gogoeta, formazioa eta partaidetza lortzea.

6.3 Guraso euskaldunen taldeei sentsibilizazio eskaintzak eginez eta talde horiek dinamizatzeko bitartekariak eta baliabideak topatuz.

- ↘ *Guraso eskola* programaren bidez hitzaldiak eskaini hilabetero Ignacio Aldecoa Kultur Etxean.
- ↘ Galtzagorri elkarte eta Haurreskolak: ahozkotasan programa sustatu.
- ↘ Lopez de Guereñu sariketa sustatu.

6.4 Seme-alaba izan berri duten familiei gutun pertsonalizatuak edo bestelako euskarriak helaraziz hizkuntzaren familia-transmisioaren garrantziaz ohartarazteko.

- ↘ Gabonetarako euskarazko produktuen katalogoaren zabalkunde eta diseinuan parte hartu.

Merkataritza eta ostalaritza

Arabako merkatu euskaldunaren eskariari erantzuteko eta dagoena sustatzeko merkatariak eta ostalariak sentsibilizatzea.

7.1 Sariak emanez / errekonozimendua landuz hizkuntza normalizazio planetan sartzen diren enpresei edota euskara bultzatzen nabarmentzen direnei.

↳ Lazarraga sariak II. edizioa abiatu eta sustatu.

7.2 Merkataritza Ganbararekin hitzarmena zabalduz edo osatuz.

↳ Merkataritza Ganbararekin hitzarmena sinatu, bertako kide diren enpresako langileei euskara ikastaroak diruz laguntzeko.

7.3 Euskarazko harrera egin ahal duten saltoki, denda edota ostalaritza guneei horren berri ematen duen bereizgarria eskainiz.

↳ Euskara elkarteekin Arabarako "Nahi baduzu euskaraz" pinak kanpaina sustatu.

↳ Merkatal gunehandietan egiten den Gabonetako Olentzero kanpaina aztertu eta sustatu.

↳ Merkataritza esparruan diagnosia egiteko formazioa eskaini Arabako euskara teknikariei.

Bertako produktu estrategikoen merkatua euskalduntzeko, ekoizleak sentsibilizatzea eta bertara eta munda zabalatzeko baliabideak ematea.

7.4 Euskararen erabilera sektore hauetan bultzatzeko ekimena abian jarritz.

↳ Bai Ziurtagiria elkartearekin 2010eko Lazarraga sarietan irabazle izan zirenei euskara planak garatzea sustatu.

7.5 Euskara Zerbitzutik hizkuntza aholkularitza zerbitzuak definituz eta diseinatuz, eta enpresari, merkataria eta ostalari elkarte nagusiekin hitzarmenak eginez, elkarre hauen kideei hizkuntza zerbitzuak eskaintzeko.

7.6 Sektore horietako langileei euskara ikasteko ikastaro berezituak eskainiz.